

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4771

1268/2019 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Erradiodiagnostikoko Medikuek kategorian, Profila: Erradiologia Interbentzionista, lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren 4ko 487/2019 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Erradiodiagnostikoko Medikuek kategoriako oinarri espezifikoa, Profila: Erradiologia Interbentzionista.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

ERANSKINA

FAK. ESP. ERRADIODIAGNOSTIKOKO MEDIKUA

PROFILA: ERRADIOLOGIA INTERBENTZIONISTA

Presidentea:

- Titularra: Ana María Angulo Saiz.
- Ordezkoa: María Amaya Arrieta Farraro.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Alexander Jon Aguinaga Alesanco.
- Ordezkoa: José Javier Echevarría Uruga.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Raquel Álvarez Francisco.
- Ordezkoa: Elena Arizaga Batiz.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Joaquín José Carrandi Camiña.
- Ordezkoa: Gonzalo María De La Vega-Hazas Porrua.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Pilar Andaluz López.
- Ordezkoa: Irma Arrieta Artieda.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Jorge Ceña Santorcuato.
- Ordezkoa: Fernando Díez Renovales.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Mariano Juan De Blas Bravo.
- Ordezkoa: Ibon Francisco Enciso Baztán.

Idazkaria:

- Titularra: Juan Bautista Echevarría Sagastagoitia.
- Ordezkoa: Eusebio Martín Sánchez.